

Otsaileko irteera 2017/02/19

LEKUBASO (Usansolo)

-TXITXIBURDUNTZI EGUNA-

10:00etan, Atxuriko geltokian geratuko gara. Bertan, zerrendak pasatu eta bakoitzak bere begirale arduradunarekin joango da.

10:30 etan, trena hartuko dugu eta Usansolorantz abiatuko gara.

Usansolora heldu eta ibilbideari ekingo diogu. Ibilbidearen erdian, hamaiketako egingo dugu indarrak hartzeko eta falta zaigun zatia burutzeko.



Lekubasora heltzean, lekua ezagutu eta bertan dagoen merenderoan txitxiburduntziaren prestaketari ekingo diogu...



Suak eginda daudenean eta dena prest dagoenean, bakoitzak prestatutako makiltxoak eta txorizoa edo jakia sutan jarriko du (taldeka) gero jarraian denok elkarrekin jateko.

Bazkaldu ostean, jolas kooperatibo desberdinak egingo ditugu.



16:39tan, Usansolon trena hartuko dugu.

17:00etan, Bilbora helduko gara. **AGURRA!**

OHARRA:

Partaide bakoitzak txorizo bat edo makil batean sartuta erretzeko balio duen jakiren bat ekarri beharko du.